| Gehien-gutxien gustatzen den arabera aukeratu. | Saiatu guztiek izan dezaten beren interesen berri emateko aukera, elkarrekin pisatzeko eta baloratzeko. |
| Interesak adierazi argudioak ondo antolatuz. | Materialak eramatea eta proposatutako gaiak zein aukera dituzten aztertzea. Onartu ala ez onartu. |
| **JARRERAZKO TREBETASUNAK** | Bozketa-sistema bat ezartzea. |
| Norberaren interesak baloratzea. | |
| Besteenak baloratzea eta onartzea. | Denon aurrean azaltzea egindako bozketen emaitzak. |
| Hartutako erabakiak onartzea. | Laguntzea gehienek hartu duten erabakia onartzen. |

B) LAN GIDOIAK

Gaia aukeratu ondoren, lana nola antolatuko dugun estrukturatu behar da eta zer ikaskuntza- irakaskuntza estrategia bultzatuko ditugun. Honen bidez, lan egiteko eredu sistematikoez jabetuko dira, beste lan batzuetan ere aplikatu ahalko dituztenak.

| ikasteko estrategiak | irakasteko estrategiak |
|---|---|
| **TREBETASUN KOGNITIBOAK**<br>Aurrezagupenak identifikatzea.<br><br>Ikasi behar duguna identifikatzea<br><br>Ikaskuntzaren emaitzak identifikatzea.<br><br>Ikasteko moduak aukeratzea.<br><br>Aprendizaiaren emaitzak identifikatzea.<br><br>**JARRERAZKO TREBETASUNAK**<br><br>Proposamenak konpartitzea eta defendatzea.<br><br>Norberaren proposamenak eta beste ikaskide batzuekin konpartitzen direnak bultzatzea.<br><br>Lanean inplikatzea.<br><br>Erabakiak konpartitzea eta onartzea. | Lan gidoiak fase desberdinetan egiten laguntzea:<br>-1.Hasierako gidoia: ideia zaparrada.<br>-2.Gidoi orokorra: gelako ikasle-irakasleen artean egina.<br>-3.Azpigaien gidoia:gelako ikasle-irakasleen artean egina.<br><br>Gaia eta azpigaiak aprendizai sekuentzietan antolatzea:<br>- Zer dakigu?<br>- Zer jakin nahi dugu?<br>- Nola ikasi behar dugu?<br>- Zer ikasi dugu?<br>- Nola ikasi dugu?<br><br>Grafikoki eta plastikoki errepresentatu:<br>- Tituluak: gaiarenak, azpi-gaienak.<br>- Aurrez azaldutako aprendizai sekuentzien tituluak.<br><br>Saio bakoitzean galdetu:<br>- Zer egin behar dugu?<br>- Nola egin behar dugu?<br>- Zer egin dugu?<br>- Nola egin dugu?<br>- Zer falta zaigu egiteko? |



Arrasateko Umezaintza

## C) "DOSSIERRAK" EDO KONKLUSIO-LIBURUAK

"Dossierrak" edo konklusio-liburuak egiten ditugu. Helburua da ikasleek egindako lana idatziz jasotzea, bakarka zein taldeka. Modu honetara, egindako lanaren ispilu bilakatzen dira eta kontsultatzeko materiala ikasle, irakasle nahiz gurasoentzako.

Atal honi dagokionean, hurrengo ikaskuntza-irakaskuntza estrategiak planteatzen ditugu:

| Ikasteko estrategiak | Irakasteko estrategiak |
|---|---|
| **TREBETASUN KOGNITIBOAK**<br>Ikasitako eduki guztiak osotasun koherente batean antolatzea | Elkarrizketak sortu taldeka edo azpitaldeka ikasitako edukinak eskema koherente batean antolatzen laguntzeko. |
| Azpigaiak gaiarekin erlazionatzea. | Dossierrak egitea proposatu (orokorra edo pertsonala) honako ezaugarriekin:<br>.kontsultatzeko argiak, ulerterrezak eta erakargarriak.<br>.ikasitakoa -norberak zein taldeak isladatzen dutenak. |
| Ikasitako edukiak ulertuz memorizatzea estruktura antolatuetan. | Hausnarketa eragin egindako lana baloratzeko. |
| Burututako prozesua identifikatzea | Egindako ahalegina positiboki baloratzea. |
| **JARRERAZKO PROZEDURAK**<br>Dakizkiten gauzak gelakoeki konpartitzea. | Gurasoak seme-alaben liburuan agertzen diren ezagutzak konpartitzen estimulatzea. |
| Egindako ahalegina baloratzea. | |



Arrasateko Umezaintza

## D) MAPA KONTZEPTUALAK:

Lan-proiektu bat edota azpi-gai bat jorratzeari ekiterakoan eta bukaeran, mapa kontzeptualak diseinatzen ditugu, dela modu grafikoan, sinbolikoan edo mixtoan. Gelako ikasle guztiek hartzen dute parte eta isladatu behar dituzte: aurrezagupenak, ikasitako kontzeptuak eta euren arteko erlazioak.

Mapak egiteak elkarrizketak sortzen ditu eta ahalbideratu egiten du jorratutako kontzeptuak ulertu, zabaldu eta aldatzeko, multzo koherente batean integratzea, euren artean dauden harremanak ezartzea eta egon daitezkeen kontraesanak, hutsuneak eta akatsak detektatzea.

Honako ikaskuntza-irakaskuntza estrategiak planteatzen dizkiogu geure buruari:

| ikasteko estrategiak | irakasteko estrategiak |
|---|---|
| **TREBETASUN KOGNITIBOAK** | Proiektuaren faseen arabera egitea: hasieran eta bukaeran. |
| -Ezagutzak antolatzea.<br>-Ideia nagusitan eta azpi-ideietan sailkatuz.<br>-Euren arteko erlazioak ezarriz.<br>-Errepikapenak, hutsuneak eta akatsak detektatuz. | Teknika desberdinen bidez egitea:<br>sinbolikoak, grafikoak, mistoak... euren gaitasunen arabera.<br><br>Kontzeptu desberdinak argi azaltzea:<br>ideia nagusiak eta azpi-ideiak. |
| **JARRERAZKO TREBETASUNAK** | Euren artean dauden erlazioak azaltzea. |
| Norberaren ikuspuntuei eustea. | Estimulatzea hutsuneak, erroreak eta aldaketa posibleak detektatzen. |
| Galderak, zalantzak agertzea.<br>Parte hartzea.<br>Konpartitzea.<br>Konparatzea. | |

Lan proiektuak luzaro samarrean aplikatu eta gero, perspektiba hau kontuan hartuz, zera konstatatu dugu: Haur Eskolako neskato-mutikoek ezagutzak eraikitzen dituztela, aukeratutako gaiaren inguruan trebetasunak eta jarrerak garatzen dituztela, bai eta autonomoki egiteko ahalmena ere. Eta hau guztiau irakasleek garatutako irakaskuntza estrategiak aplikatuz.

## BIBLIOGRAFIA:


. AUSUBEL, D.P., NOVAK, J.D eta HANESSINA, H. (1993): *Psicología Educativa: Un punto de vista cognoscitivo.* Ed. Trillas.

. BATZUK. (1994): *El constructivismo en el aula.* Graó, Bartzelona.

. BRUNER. J. (1963): *El proceso de la edcuación.* Uthea, Mexico, (1960)

. CAMPS, A. (1994): "Projectes de llengua entre la teoria i la pràctica" *ARTICLES de didàctica de la llengua i la literatura,* 2.zenb. Bartzelona, 7-19.orr.

. DEWY, J. (1989): *Cómo pensamos.* Paidós, Bartzelona, (1910)

. EDWARS, D. i MERCER, N. (1987): *El desarrollo de la comprensión en el aula.* Paidós/MEC, Bartzelona.

. FONS, M. (1996): "Aprendre a llegir i escriure i els projectes de treball globalitzats". *ARTICLES de didàctica de la llengua i la literatura,* núm.8. Bartzelola, 97-107. orr.

. HERNANDEZ, F., VENTURA, M. (1992): *La organización del currículum por proyectos de trabajo. El conocimiento es un calidoscopio.* Graó, Bartzelona.

. KILPATRICK, W.H. (1918): "The project method", *Teacher's College Record,* 19.zenb. 319-335.orr.

. MONEREO, C. (Coord)(1994): *Estrategias de enseñanza-aprendizaje.* Graó, Bartzelona.

. NEWMAN, D., GRIFFIN, P. eta COLE, M. (1991): *La zona de construcción del conocimiento.* Ed. Morata/MEC, Madril.

.NOVAK, J.D. eta GOWIN, D.B. (1988): *Aprendiendo a aprender.* Martínez Roca, Bartzelona.

# hartz familia bat



Elhuyar, Zientzia eta Teknika aldizkaritik 106. zkia.

Francisca Moreno Lizandra
"Virgen de Puyeta" Herri Eskola
Ansó. Huesca

## ❑ JUZTIFIKAZIOA

Honako arrazoiak bultzatu gintuen unitate hau aukeratzera: gure eskolako irakasle batzuk lan-talde batean parte hartu zuten ikasteko nola babestu eta zaindu basoak eta desagertzear dagoen bertako biztanle bat: hartz arrea.

Hala, ideia izan zen animalia hau zenbat eta gehiago ezagutu ikasleek, orduan eta hobeto errespetatu eta zainduko luketela. Esperientziak, beraz, jarrerak ardatz izatea eskatzen zuen.

Era berean, gai hau jorratzea oso motibagarria zen ziklo hauetako ikasleentzat, animalien gaia oso erakargaia da-eta adin hauetako neskato-mutikoentzat.

## ❑ IKASTETXEARI BURUZKO ZENBAIT OHAR

Gure eskola Aragoiko Pirinioko herritxo batean dago kokatua (inguruak ezin politagoak dira!). Eskolatik bertatik, naturak urtaroz urtaro hartzen dituen koloreak eta argiak ikus ditzakegu (egunero aldatzen da argia eta kolorea!).

## ❑ IKASLEAK

Esperientzia hau 11 ikasle dituen gela batean egin genuen: 4 urteko bi, 5 urteko bi, 1. mailako bi, 2. mailako lau eta integrazio programako bat (paralisi zerebrala).

Nahiz eta ia guztia Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek egin zuten, beste ikasleek ere parte hartu zuten ekintza batean edo bestean: erakusketan, dokumentazio-lanetan, marrazkiak egiten, psikomotrizitatean, abesten...

## ❑ METODOLOGIA

Honako printzipio metodologikoak hartu ziren kontuan:

.Aniztasuna aintzat hartu: begirunea norberaren izateari, lan-erritmoei, idazteko eta irakurtzeko gaitasunari, inplikazio eta interes desberdinei...

.Ingurunea, gune ruraletan hain garrantzitsua dena, baliabide metodologiko moduan erabiltzea.

.Aprendizaia esanguratsua egin ditugun ekintzetan (motibazioa, ebaluatzeko momentuak, aprendizaiaren funtzionalitatea,...).

.Globalizazioa. Unitatea egiteko edukiak ez ziren ahoz eta irudiz eman soilik, bai ikus-entzunezkoen bidez ere; eta plastikaren, musikaren, psikomotrizitatearen, idazkeraren... bidez.

.Zehar lerroak uztartzea: Inguruaren Ezaguera.

.Ikus-entzunezkoak gelako programazioan.

## ❑ HELBURUAK

Unitate Didaktiko honen bidez bi helburu nagusi lortu nahi izan ziren:

- Batetik, hartz arrea nolakoa den ezagutzea (anatomia, nola jaiotzen den, zer jaten duen, zein garrantzitsuak diren urtaroak bere bizitzeko moduan,...); eta, bestetik, errespetatzen eta zaintzen ikastea.

-Jabetzea nola material batzuk beste batzuk bilakatzen diren (marrazkiak eta testuak, liburua eta bideo bilakatzen dira,...)

## ❑ ANTOLAKETA ETA BALIABIDEAK

**Espazioak:** hartz arreari buruzko txoko bat antolatu genuen liburuekin eta argazkiekin.

**Materialak:** hartzari buruz egin behar genuen liburua egiteko erabili genituen bideoa, argazkiak, diapositibak, erremintak, tresnak eta bibliografia.

**Giza-baliabideak:** irakaslea, ikasleak eta bi lankide, argazkigintzan eta bideoan nahikoa esperientzia dutenak.

## ❑ DENBORALIZAZIOA

Ikasturte osoan zehar egin zen. Aktibitate batzuek aurrikusitako denboran burutu ziren; beste batzuk ume bakoitzaren erritmoaren arabera egin ziren; eta, beste batzuk, ikastetxean lan egiten ez duten pertsonen ordutegiaren arabera.

## ❑ AKTIBITATEAK

**1. Aktibitatea.**

"Hartz arrea ezagutzen"

**Helburuak**

-Hartz arrea ezagutzea, bizi garen inguruaren biztanle daeta.

**Garapena:**

*Erakusketa: hainbat materialez osatua: muralak, ADENAK utzitako argazkiak eta marrazkiak (30').

*Dokumentala: hartzari buruzko bideoa, ADENAK utzitakoa (30').

*Hartz arrearen txokoa: hainbat liburu zeuden eta umeak nahi zutenean ikusi ahal zituzten. Batez ere 2. aktibitatea egin zutenean (3 hilabete).

**2. Aktibitatea**

*"Hartz familia bat" ipuina, gure irakasleak idatzi duena, ezagutzen dugu eta guk gure marrazkiekin ilustratzen dugu" (urrian, azaroan eta abenduan 45'egunero)*

**IPUINA: "Hartz familia bat"**

Ipuinean, hiru zatitan banatu duguna, hartz familia baten abenturak kontatzen zaizkigu, bizitzeko era, elkarrekiko harremanak, janaria eta abar. Haurrak modu errazean, estimulagarrian eta atseginean jabetzen dira horietaz.

Narciso eta bere familia

Lehen zati honetan, kontatzen zaie bi hartz (Narciso eta Violeta) nola parekatzen diren. Nola hartz-emea ernari dagoen udan; udaberrian nola bizi diren eta zer jaten duten; uda, udazkena eta negua eta hartz-kumea jaiotzea (Jacinto).

Jacinto ikasten ari da

Kontatzen da Jacintok nola ikasten duen, izandako esperientziak eta abenturak... jaiotzen denetik heldua den arte.

Atal honetan honako edukiak landuko dira: Titia hartzea (hartza animalia ugaztuna da); amaren, Violetaren, sabeletik jaiotzea; nola ikasten duen jaten, bere burua defendatzen, ohiturak eta abar urtaro desberdinetan, eta hartz-tokitik irtetzea hibernazioan, oso-oso gutxitan gertatzen dena.

Jacinto handi egiten da

Azken zati honetan, Jacintok lehen aldiz ikusten du nola erasotzen duten ardi errebainu bat. Violetak jakinarazten dio gizakiarekin zer arazo izan ahal dituen. Frantziako Pirinioetara jotzea erabakitzen du eta bertan bere bikotea ezagutuko du.

**Helburuak**

-Ezagutzea hartz arrea eta urtaroen eragina bere bizitzeko eran, elikaduran,...; errespetatzen eta zaintzen ikastea.

-Ipuineko zatiak ulertzeko gai izatea ematen zaizkien mezuak direla medio. Eta ipuineko zatiak marrazki bidez originaltasunez emateko gauza izatea.

**Garapena**

Pasartea edota ikasleek ilustratu behar zuten ipuinaren zatia kontatzen zuen irakasleak. Batek ez bazekien zer marraztu, irakasleak galderak egiten zizkion urtaro horri buruz, pasarteari buruz,...; detaileak eta pertsonaiak iradokitu egiten zizkion marrazkia egiteko edota osatzeko. Etengabe hartzen zen kontuan ikaslearen nortasuna; izan ere bakoitzak bere modura egiten zuen, bere ezaugarrien, motibazioaren eta interesaren arabera. Hori guztia trazuaren indarrean, forman, neurrian eta figuren eta detaileen kokapenean ikusten zen.

Gutxika-gutxika marrazkiak hobeak ziren, adierazkorragoak eta detaile gehiagorekin. Gainera, sujerentzia horiek baliagarriak izango dira ikasleak behatzaile hobeak izan daitezen, detailistagoak sorkuntza plastikoari dagokionean, beti ere espontaneitatea, sormena eta norberaren estiloa galdu gabe.

Marrazkiekin honako aktibitateak egin dira: ipuinak, eskolako aldizkarian parte hartu, lan-fitxak egin eta materiala bidali Frantziara hango ikasleek gaztelera lan dezaten ipuinaren bidez.

Koloreari dagokionez, honako edukin plastikoak landu genituen: objetuetan eta beren koloreetan eguzkiak eta argiak duten eragina, baita distantziak nola aldatzen dituen koloreak eta neurriak ere.

**3. Aktibitatea**

*"Ipuin bat egiten da ipuinaren testuarekin eta ilustrazioekin" (urtarrilean, hiru sesio astean 45')*

**Helburuak**

-Talde lana ezagutzea eta baloratzea.

-Ezagutzea nola material batzuek (papera, marrazkiak, testuak...) ipuin primerakoa bilakatzen diren.

**Garapena**

Ilustrazioak bukatu zirenean, eta testuak letra eta neurri egokiz idatzi ostean:

.Ikusi zuten nola egiten zen liburua, geure testuez eta ilustrazioez baliaturik.

.Gelan egin genuen enkuadernazio erraz bat ikusi zuten. Materialak: papera, artilea, orratza, artaziak...

.Jakan enkuadernatutako liburu bat ikusi zuten (azal gogorrak, ilustrazioak, testuak...).

**4. Aktibitatea**

*"Ipuin hau guretzako!" (otsailean 2 aste; egunero 30' saioak)*

**Helburuak**

-Talde lana ezagutzea eta baloratzea.

-Idazmeneko trebetasunak lantzea, hitzak eta esaldi errazak idatziz.

**Garapena**

Aktibitate honetan Haur Hezkuntzako ikasleek oso testu errazak kopiatzen zituzten, irakasleak prestatuak eta aurrez eginiko marrazkiekin ezkontzen zirenak. Idatzi ez balute, liburutxoa marrazkiz osatua egongo zen soilik.




**1. irudia**

Testu guztiak egin eta gero, ikusi zuten nola irakasleak pasarteak eta testuak itsastzen zituen eta nola ari zen orriak prestatu ahala liburutxoa egiten.

**5. Aktibitatea**

*"Bideo bat, argazkiak eta diapositibak egiten dira koloreetako ilustrazioekin" (apirilean 2 saio; bakoitzak 45')*

**Helburuak**

-Ikastea nola material batzuk (papera, kartoia, oihala, haria...) beste material batzuk bilakatzen diren (liburua, bideoa, diapositibak...).

**Garapena**

Saiatu ginen umeak gure esperientziaren ikus-entzunezkoak nola egiten ziren ikusten:

.Irudia eta soinua grabatzeko behar zen material guztia behatu zuten, aparatuak, etab.

.Marrazkiak bideoan nola hartzen ziren behatu zuten eta ondoren telebistan ikusi zituzten.

.Behatu zuten nola ikastetxeko bertako ikasle batzuek (2.etapakoak) grabazio soinudun bat egiten zuten.

.Demostrazio txiki bat egin zitzaien erakusteko nola irudiak eta grabazioa uztartuz, ipuina bideo bilakatu behar zen. Honako titulua zeukan: "Hartz familia bat".

**6. Aktibitatea**

*"Ipuinarekin lan koadernotxo batzuk egin genituen eta beste ekintza batzuk ere bai: hizkuntza, matematikak, adierazpen plastikoa, dinamika, musika,...(maiatzean eta ekainean, bina aste)*

**Helburuak**

-Idazmeneko trebetasunak lantzea, hitzak eta esaldi errazak idatziz.

-Kontzeptu matematiko batzuez jabetzea eta beste batzuk erreforzatzea (egoera bereziak, numerazioa, eragiketak, kantitateak,...).

-Gorputz adierazpena garatzea.

-Memoria garatzea: urtaroen ezaugarriak, ipuinaren pasarteak...

-Garapen artistikoa ahalbideratzea: musikala, plastikoa eta gorputzarena.

**Garapena**

Aktibitate hau landu aurretik, umeek euren marrazkiekin egindako bideoa ikusi zuten. Horren bidez, hartzari buruzko hainbat edukin gogoratu zituzten eta, gainera, sendo gozatu.

## IKASTEKO ETA EBALUATZEKO FITXAK ETA KUADERNOAK

**Behatu eta egin**





**2. irudia**

**3. irudia**

**Garapena**

Bina fitxa eman zitzaien. Lehenengoan ipuinaren pasarte bat ikusten da marraztu gabe; beraiek marraztu, ebaki eta bigarren fitxan itsatsi behar zuten.

**Urtaroak ezagutzen ditut**






**4. irudia**
**5. irudia**

**Garapena**

Bina fitxa eman zitzaien. Lehenengoan ipuinaren lau eskena ageri ziren; bakoitzak urtaro bat errepresentatzen zuen, urtaroaren izen eta guzti. Ikasleek pasarteak behatu eta zein urtarori zegozkion igerri behar zuten. Ondoren, ebaki eta beste fitxan itsatsi behar zituzten, beti ere ordenean (udaberria, uda, udazkena eta negua).

**Zer gertatuko da? Zer gertatu zen ipuinean?**

**6. Irudia**




**Garapena**

Fitxa bana eman zitzaien. Bertan ipuinaren hainbat pasarte ikusten ziren ordenean jarrita eta azkena zuri. Pasarteak ondo begiratu ondoren ipuinaren bukaera marraztu behar zuten.

**Hainbat gauza gogoratzen dut urtaroez**







**7. Irudia**
**8. Irudia**

**Garapena**

Bina fitxa eman zitzaien neska-mutikoei. Fitxa bakoitzean ipuinaren bi pasarte ikusten ziren urtaroz urtaro eta hitz batzuk agertzen ziren (izenak, ekintzak eta kualitateak). Ikasleek ondo begiratu, irakurri, ebaki eta zegokion urtaroaren azpian itsatsi behar zituzten.

## ❑ BESTE AKTIBITATE BATZUK

Kuadernotxo batzuk egin ziren hizkuntzan eta matematikan, eta hainbat ekintza plastikan, gorputz adierazpenean eta musikan.

**Garapena**

HIZKUNTZA: Hartz arreari buruzko galderak agertzen ziren: bizitzari, elikadurari, anatomiari... buruzkoak. Hitz batekin edo batzuekin erantzun behar zuten. Esaldi laburrak idazten hasi ginen poliki-poliki eta hiztegi-ariketak egin genituen egindako grafiekin.

MATEMATIKAK: Irakasleak proposatutako ariketak egin behar zituzten (beti ere euren mailara egokituak), ipuinare-

kin zer ikusia zutenak (zuhaitzak, erleak, txoriak, hainbat fruitu lehor, inurriak, hartzak, hostoak, loreak, etab.). 1-9 arteko zenbakiak, behetik-gora eta goitik-behera kontatu, neurriak, nozio espazialak, batuketara eta kenketara hurbildu...

ESKU-LANAK: Hartzak urtaroetan zehar marraztu behar zituzten (4 urtekoek eta integrazio programakoak). Jacinto hartzaren collage bat ere egin behar zuten. Horretarako aldizkarietan paperak aurkitu, zati txikiak ebaki eta hartza zegoen fitxa batean itsatsi behar zituzten.

MUSIKA: "El oso y el osito" kanta.

GORPUTZ ADIERAZPENA: Beroketa ariketa erraz batzuk eta gero, haurrei ipuinaren zati bat kontatzen zitzaien. Eurak gorputzaren bidez adierazi behar zuten edota, batzuetan, soinuen bidez. Adibidez: Horrela mugitzen dira Jacinto, Violeta eta Narciso. Hori adierazteko lau-hanketan ibiltzen ziren.

## ❑ EBALUAZIOA

**Hasierako ebaluazioa** egin genuen jakiteko zer zekiten hartzari buruz (aurreko urtean landuta zegoen eta etxean eta komunikabideetan zerbait entzuna zuten, animalia berezia baita paraje hauetan).

Aktibitate bat egin aurretik, aintzat hartu zen ikasleek zekitena jorratu behar ziren gaietaz.

4 urteko haurrak eta integraziokoa oso motibatuta egon ziren, hartza ezagutu baitzuten eta gauzatxo batzuk ikasi hari buruz. Aktibitate bakoitzan irakasleak aprendizaia-prozesuko unea behatu zuen, ikasleek lanak nola egiten zituzten, zein ariketa zen motibagarri eta interesgarri (ipuina enkuadernatu ostean ikustea, ikustea euren marrazkiak nola bideo bilakatzen ziren, bideoa ikustea...) eta zein zen astunagoa (ipuinaren ilustrazioak egitea).

**Ebaluazioa jarraia izan zen**. Irakasleak haurren adierazpenak behatu zituen, bai eta aktibitatez aktibitate zer ikasten zuten ere.

Honako puntuak ebaluatu dira: sormena, originaltasuna, jarraipena, ordena, bai eta erreakzioak, interesa, galderak, iradokizunak...

Neska-mutikoek eginiko lan guztiak ontzat eman ziren.

Ikasleak izan ziren unitatearen protagonista, eurak egin zuten guztia-eta! Eurak egindako materialekin lan egin zutenez, aktibo eta motibazioz beterik egon ziren bukaera arte.

Hona hemen gure esperientzian egin genuen materiala:

. Bideo bat, diapositiba biluma bat, erabiltzeko gida eta guzti, eta argazkiak.

. Hiru kuadernotxo ikasle bakoitzeko (plastika, matematika eta hizkuntza).

. Ipuina, koloreetako 60 ilustraziorekin.

. Neska-mutikoentzat zuri-beltzean egindako ipuina.

. Ipuinaren ilustrazioekin egindako beste material batzuk: fitxa indibidualak, Ikastetxeko aldizkaria, neska-mutiko frantsesentzako ipuina....

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet esperientzia hau egiten lagundu duten pertsona eta erakunde guztiei (Baliabide Zentruei eta PAT-ei). Izan ere, eurei esker duzue esku artean lana hau eta ezagutzeko aukera ere.

Nire esperientzia sakonago ezagutu nahi baduzue, hona nire helbidea:

ETXEKOA

Francisca Moreno Lizandra

Plaza Canal de Bardenas nº 41. Tfonoa: 976-664427

50600 EJEA DE LOS CABALLEROS

ZARAGOZA

ESKOLAKOA

C.P. Rector Mamés Esperabé

Carretera de Erla s/n. Tfonoa: 976-662073

50600 EJEA DE LOS CABALLEROS

ZARAGOZA

Eta Sekuntzia Didaktikoa argitaratua ezagutu nahi baduzue, hona jo:

Centro de Profesores y Recursos

Calle Ramón y Cajasl nº 19

50600 EJEA DE LOS CABALLEROS

ZARAGOZA



Elhuyar, Zientzia eta Teknika aldizkaritik 106. zkia.

# H-2 lantzeko proiektuak



Aretxabaletako Kurtzebarri Eskola


Mariam Bilbatua.

Eskoriatzako Irakasle Eskola


Artikulu honetan proiektugintzaren inguruko bi aspektu ditugu aztergai. Batetik, proiektuek H2 lantzeko dituzten abantailak; eta, bestetik, hizkuntza lantzeko proiektuetan kontuan eduki beharreko alderdiak. Deba Bailarako Murgiltze ereduko mintegietan* garatu dugu ondoren azaltzen den metodologia eta horien ekarpenak jasotzen dira artikulu honetan.

---

*(*) Deba bailarako Murgiltze ereduko mintegian parte hartzen duten eskolek.*

- *Erguin, S. Andres eta Musakola eskola Publikoan (Arrasate)*
- *S. Frantzisko Ikastola (Arrasate)*
- *Kurtzebarri Eskola Publikoa (Aretxabaleta)*
- *Ezeiza Eskola Publikoa (Eskoriatza)*

# Haur-Hezkuntzako hiru iharduera motak eta H2 irakaskuntza

Haur-Hezkuntzako haurrekin burutzen ditugun iharduera gehienak hiru ardatzen inguruan antolatzen dira:

. Eguneroko ekintzak

. Txokoak edo/eta tailerrak

. Proiektuak

## ❖ EGUNEROKO EKINTZAK

Eguneroko bizitzan sortzen diren iharduera hauek: sarrera-irteerak, hamaiketakoa, animaliak eta landareak zaintzea..., oso garrantzitsuak dira H2-ren ikaste prozesuan.

Haur-Hezkuntzaren lehen zikloan (0-3) iharduera gehienak ekintza hauen inguruan antolatzen dira. Iharduera hauek egonkorrak dira, beraien elementuak ezagunak haurrentzat. Honek komunikazioa ziurtatzeaz gain, eginkizun komunikatibo gero eta konplexuagotan parte hartzeko aukera ematen du, beti ere irakaslearen eskuhartzea Garapen Hurbileko Gunean kokatzen badugu, hau da, dakitenetik abiatuz, zerbait gehiago eskaini eta zerbait gehiago eskatu haurrei.

H2 irakasten dugun irakasleok definitu behar ditugu: iharduera hauetan burutzen diren eginkizun komunikatiboak, eginkizun komunikatibo hauetan haurrekin lortu nahi dugun garapena eta gure eskuhartzea; hau da, erabiliko ditugun estrategiak. Hona hemen adibide bat:

### HAMAIKETAKOA

**Eginkizun komunikatiboak:**

. Banaketaren antolaketaz hitz egitea

. Nahiak adieraztea

. Elikagaiez mintzatzea

**Prozedurak**

. Irakaslearen galdera konkretuei erantzutea

. Baietza, ezetza, izenak edota kantitatea erabiltzea nahiak adierazteko.

**Estrategiak**

. Eguneroko ekintzen inguruan, umeen adierazpena bultzatzea.

## ❖ TXOKOAK ETA TAILERRAK

Espazio egonkor hauetan dauden materialek egoera desberdinak bizitzeko eta eskolatik kanpoko iharduerak gelara ekartzeko aukera ematen digute: denda, etxea... Honek diskurtsoen aniztasuna ahalbideratzen du, haurrei eremu sozial desberdinekin erlazionatutako eginkizunetan parte hartzeko aukera emanez.

H2 erakusten dugun irakasleok eginkizun hauen xedeak definitu behar ditugu, hau da, haurrekin lortu nahi dugun garapena; halaber, horretarako proposatuko dizkiegun eginkizunak, eskainiko dizkiegun materialak eta gure eskuhartze motak.



## ❖ PROIEKTUAK

Ingurune sozial eta naturalaren ezagutzarekin erlazionatutako proiektuetan, haurrentzat esanguratsua den eginkizun bat hartzen dugu ardatz bezala: basoan aurkitutako gauzen erakusketa, Eskola ondoko zuhaitzaren bizitzari buruzko albuma... Eginkizun honen inguruan definitzen ditugu haurrekin lortu nahi ditugun xedeak.



Ikasleak, proiektuaren bukaeran, hizkuntza dela medio, burutu beharko duen iharduera komunikatiboari *azken xedea* edo *xede eginkizuna* deritzogu.

Aipatzekoa da azken xedeak ikasleen aprendizaian duen eragina:

. Aprendizai esanahitsuaren baldintza bat betetzen laguntzen du: esanguratasun logikoarena, ekintza esanahitsu batean kokatzen dira haurrek burutzen dituzten eginkizunak. Horrela, edukien arteko koherentzia ziurtatzen da. Eta ondorioz, haurrei errezago egiten zaie elementuen arteko erlazioaz jabetzea eta sare kontzeptualak osatzea.

. Esanguratsua den egoera komunikatiboen aurrean jartzen dugu, beraz, ikaslea; eta proiektuan zehar lantzen diren edukiak zentzudun bihurtzen ditu. Gainera, aukera handia ematen dio ikasleari egoera kontrolatzeko eta nondik nora doan jabetzeko.

## ❑ Nola antolatzen dira proiektuak?

**Irakasleak eman beharreko pausuak**

**1. pausua. Ingurunearen ezagutzarekin erlazionatutako ekintza bat diseinatu.** Ekintza hau beste ekintzen ardatza izango da, beste ekintzei batasuna emango diena.

**2. pausua.** Ekintza honen bidez lan daitezkeen edukiak definitu:



Mari, L.: *L'arbre, le loir et les oiseaux.* l'école des loisirs . Paris, 1973




Ezeiza Eskola Publikoa. Eskoriatza.

. Zer aukera ematen digu esperientzia eremu desberdinak garatzeko?

. Zer eginkizun komunikatiboetan parte hartzeko aukera edukiko dute?

. Eginkizun komunikatibo hauetan arrakastaz parte hartzeko, zer jakin behar dute?

. Diskurtsoa antolatzeko estrategiak

. Nozioak adierazteko estrategiak.

**3. pausua.** Edukiak lantzeko, definitu haurrei proposatuko zaizkien ekintzak eta eskainiko zaizkien materialak eta laguntzak edo irakaslearen eskuhartzeko bideak.

**Ikasleekin eman beharreko pausuak**

**Proiektuaren sekuentzia**

**1. pausua. Azken ekintza**ren proposamena, hau da, umeek proiektuaren bukaeran burutu, edo/eta bukaerarako burutua izango duten ekintzaren proposamena: erakusketa bat prestatzea, antzerki bat antzeztea, jaialdi bat antolatzea...

**2. pausua .** Proiektua planifikatu. Haurrekin batera egingo dugu planifikazioa, planifikazioan proiektuaren nondik norakoa aztertuko dugu: emango ditugun pausuak, behar ditugun materialak...

**3. pausua.** Proiektua burutu

Proiektua burutzeko egingo ditugun ekintzak bi eratakoak izango dira:

. Eginkizun komunikatiboak

. Eginkizun egituratuak

Eginkizun komunikatiboak proiektuaren antolaketa eta bilakaeraren inguruan sortzen dira: ikusi/ikasiko dugunaz hitz egitea, antolaketaz hitz egitea..

Eginkizun egituratuak hizkuntzaren alderdi desberdinak lantzeko espreski programatuak dira, lexikoa lantzeko jolasak, sistema alfabetikoaren arauez jabetzeko hitzen arteko konparazioak...

# Eskolak

## Bost urte

### ❑ XEDE EGINKIZUNA

Ikastetxearen ondoan dagoen zuhaitz batek kurtso osoan zehar dituen aldaketei buruz liburu bat idaztea eta, ondoren, kontatzea.

### ❑ PROIEKTUAREN BILAKAERA

**Proposamena**

Hasteko, "Zuhaitz baten historia" liburua irakurtzen zaie eta proposatzen zaie ikastetxearen ondokoaren historia egitea.

**Planifikazioa**

Liburua egiteko prozesua eztabaidatzen da, hilero behatzera joango gara, argazkiak atera, marrazkiak egin, idatzi.

Bi liburu egingo ditugu: bata haundia gelarako eta beste bat txikia, ume bakoitzak bere etxera eramateko.

**Behaketa eta adierazpena**

Irteera egin aurretik:

. Zuhaitza nola zegoen gogoratu:

. Zuhaitzaren atalak: hostoak nola zeuden, adarrak, ingurunea.

. Ordurarte behatutako aldaketak gogoratu: lehenengo argazkia atera genionean nola zegoen? Ondorengo argazkian? Orain nola egongo da?

Irteera egin ondoren:

. Behatutakoa azaldu, aldaketarik egon da?

. Nola dago: hostoak, adarrak, ingurunea.

. Denon artean gelako liburuan jarriko den testua erabaki, irakasleak idatziko du testua. Ondoren, testua gelako liburuan idatziko dute baita bakoitza egiten ari den liburuan ere.

# ...o Zuhaitzaren bizitza

...o haurrekin burutu genuen proiektu hau

. Hostoen liburua, irteeretan jasotako hostoekin egingo da.

Eginkizun egituratuak:

. Zuhaitzaren atal bakoitzaren txartelak aurkitu eta muralean itzatzi.

. Hostoak ordenatu eta bakoitzaren kolorea esan.

## ❑ EDUKIAK:

**Esperientzi eremuak: Ingurune naturala**

Prozedurak:

. Inguruko landare eta zuhaitzen ezaugarri eta jokabidearen behaketa zuzena (sistematikoa eta espontaneoa).

. Landare eta zuhaitz baten bizitzaren zikloa zuzenean aztertzea eta denborarekiko erlazioak ezartzea.

. Inguru naturalean behatutako gertaerak oroitzea eta gertaera berriekin konparatzea.

Eduki kontzeptualak:

. Izaki bizidunak: Landareak eta zuhaitzak

. Landareen zikloa

. Landareen bizi beharrak

Jarrerak:

. Landareekiko jakinmina, errespetua eta ardura, inguru naturala gordetzeko oinarrizko jarrera gisa.

**Komunikazioa eta errepresentazioa**

Prozedurak:

. Behaketa zuzenean jasotako datuak azaltzea

. Behaketa zuzenean jasotako datuak aurreko datuekin konparatzea.

. Fenomenoen bilakaera denboran zehar azaltzea

. Aldaketen arrazoien berri ematea

. Egoera bati egokitzen zaion testua aukeratzea

. Ereduaz baliatuz testuak idaztea

. Hitzak konparatzea

. Egoeraz baliatuz testuan jartzen duena antzematea

Eduki kontzeptualak

. Gaiari dagokion lexikoa: zuhaitzaren atalak : enborra, hostoak...

. Zuhaitza nola dagoen adierazteko nozioak eta hitzak

. Koloreak

. Edukitzea / ez. . Partitiboa : ez du hostorik

. Zuhaitzaren bilakaera adierazteko nozioak eta unitate linguistikoak

. Denbora: Aditza: Lehen orain

Antolatzaileak: Hasieran, ondoren...

Lexikoa: Udaberria, Udazkena, Negua, Uda.

Deklinabidea: Noiz

Jarrerak

. Besteek esaten dutenaren aurrean kuriositatea eta arreta.

. Norberak dituen datuak azaltzeko gogoa.




Ezeiza Eskola Publikoa. Eskoriatza.

# Argazki makina bat egin nahi dugu!



*Nekane Otsoa*
*Cristina Elorza*
Arrankudiaga Eskola

Artikulu honetan azaldu nahi dugun esperientzia Bizkaiko eskola txiki batean landu dugu. Gure ikastetxean, 95-96 ikasturtean, hiru gelatan banatuta egon dira Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako bigarren ziklora arteko ikasleak (2-9 urte). Orotara 35 ume eta bost irakasle izan gara. Gizabaliabideok hiru gelatan antolatu ditugu eta laguntza desberdinak eman ditugu, bai Haur Hezkuntzako gela ere.

Eskola osoa hainbat ekintzatan dago inplikatuta: egunkaria egitea, igerilekura joatea, urtebetetzeak ospatzea, etab. Guztietan ere, ume bakoitzaren ardura, partaidetza eta elkar laguntzeko jarrerak bultzatzen ditugu. Adinaren arabera sortzen den aniztasuna ez dugu gure lanerako oztopo. Eskolarako ditugun helburuak gela bakoitzean ere agertzen dira eta landu ere bai.

Txikien gelan 14 ume izan dira 2, 3, 4 eta 5 urtekoak. Herrian bizi diren adin honetako ume guztiak datoz eskolara eta, Haur Hezkuntzako talde honetan bereziki, irakasleok harreman estua dugu familiekin.

Gela honen ezaugarririk aipagarriena umeen adinen arabera sortzen den heterogeneitatea da; guk, irakasleok, irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako aberasgarria ikusten dugu hori.

Goian aipatu dugun bezala, Haur Hezkuntzako bi zikloetako umeak datoz gela honetara eta gure plangintzan kontuan izan behar dugu berezitasun hau. Alde batetik, ume bakoitzaren nahi eta erritmoa errespetatu behar da eta, beste alde batetik, denontzako deigarria den antolaketa lortu behar dugu.



Eguneroko dinamikarako denbora eta espazioaren antolaketa argia, malgua eta ziurtasuna ematen duena osatuaz joan gara umeekin batera ikasturtean zehar. Umeentzako ezagunak diren eguneroko egoera horietan (korroa, jolasa...) umeen gogoak eta nahiak azaltzen dira askotan.

Espazioaren eta denboraren antolaketa lagungarria da autonomia bultzatzeko. Denon artean eraikitako estruktura horretan adin desberdinetako umeen arteko **harremanak** oso aberasgarriak dira. Taldeko txikientzat oso deigarriak dira ume nagusien gaitasunak eta trebetasunak. Nagusiek euren ezagupenak ordenatzeko itzelezko lana egiten dute, txikiak eguneroko momentuetan parte har dezaten.

Nola errazten dugu **umeen autonomia**? Aukera desberdinak eskaintzen ditugu: galdera itxiak ez planteatu; gatazka baten aurrean, denon artean iritzi bakoitza aztertu ondoren, irtenbideak bilatu; euren originaltasuna bultzatu... Gela honetan besteen ideiak errespetatzeak eta adostasuna lortzeak zuzentzen ditu ihardueraк.

Umeen benetako protagonismoa lortu nahi badugu **globalizazioa** izan behar da irakasle-

aren lanaren ardatza irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Eta, gaur egun, enfoke globalizatzaile batez lan egiteko aurkitu dugun biderik egokiena **proiektuak** dira. Proiektuen bidez umeen aurrezagupenak kontuan izaten ditugu, mota desberdinetako gaitasunak lantzen (motrizak, kognitiboak, harremanak) eta hiru motatako edukiak kontuan izaten (jarrerak, prozedurak, kontzeptuak).

Artikulu honetan kontatuko dizuegun proiektua horrela sortu zen: umeek desio bat daukate eta desio horrek ikerketa lan batera eramaten gaitu. Irtenbideak eta erantzunak denon artean bilatzen ditugun prozesuan, batetik, umeen autonomia errazten dugu, eta, bestetik, ikusmolde globalizatzaile batez lan egitea ahalbideratzen dugu irakasleok.

Hona hemen proiektuak lantzeko erabiltzen dugun **Prozesu Didaktikoa**:

**1- ZERGATIA + MOTIBAZIOA**

**2- ZER EGIN NAHI DUGU (LAN PROIEKTUA)**

| umeek zer dakite | zer egin / jakin nahi dugu | irakasleak zer nahi du umeek jakin dezaten |
|---|---|---|
| aurrezagupenak | lanaren planifikazioa<br>lanaren antolaketa | irakaslearen erabakiak |
| **globalizazioa** | ***. informazioa non bilatu***<br>***. nola egin? ardurak***<br>***.denboralizazioa***<br>***. baliabideak*** | HELBURU DIDAKTIKOAK<br>EDUKIAK<br>IRAKASLEAREN PAPERA<br>EKINTZAK<br>EBALUAZIOA |

**3- PROIEKTUAREN GARAPENA**

**4- SINTESIA ETA ONDORIOAK**

**5- PROIEKTUAREN EBALUAZIOA**

Gaur egun oso baliogarria egiten zaigu eskema hau. Umeek euren gogora gai bat aurkezten dutenean, goian aipatutako urratsak jarraitzen ditugu denon artean borobilduko dugun proiektu bat osotu arte.

Eskema honetan irakasleari ematen diogun papera bereziki azpimarratu nahi dugu. Egiten diren lehenengo proiektuetan ez dakigula onartzea zaila egiten zaigu. Aurrerago, taldeak berak markatzen ditu lanerako erritmoak, eta irakaslearen laguntza oinarrizkoa da. Itxaroten ikasi behar dugu, adin hauetako umeek denbora behar dute-eta ideiak ordenatzeko, galderak planteatzeko, irtenbideak aurkitzeko eta gatazkak konpontzeko. Irakasleok erraztu egin behar diegu denbora hori, eta gure iritzia azaltzeko unea ondo zaindu.

Prozesu didaktikoan zehar erabaki batzuk ikasleek hartu behar dituzte eta beste batzuk irakasleek: ikasleek gauzatu duten lanaren planifikazioa egin behar dute, eta irakasleak dituen helburuak eta landuko dituen edukinak planifikatuko ditu. Irakasleak, halaber, proiektutik aparte ekintza zehatzak proposatuko ditu eta bere paperaren diseinua eta ebaluaketarako erabiliko dituen irizpideak zehaztuko.

Planifikazio hau zabala, malgua izango da; eta beti ere umeek egin nahi dutena zehaztu ondoren, umeen aurre-iritziak ezagutu ondoren, programazio horrek, umeen garapen mailari, ezagutza mailari... egokitua izan beharko du, esan bezala, interesak eta beharrak kontuan izanik. Eta ez askotan egin dugun bezala, umeen edozein planteamenduren aurretik.

## ❖ PROZESU DIDAKTIKOA

### 1- ZERGATIAK, MOTIBAZIOA.

Gure geletan umeek ohitura dute etxetik hainbat eta hainbat gauza ekartzeko. Ohitura honekin irakasleok helburu ezberdinak betetzea dugu helburu: etxearen eta eskolaren artean lotura estuagoa izatea; umeen interesak eta jakinminak nondik nora doazen jakitea; interesatzen zaizkien gauza horiek abiapuntu izanik eguneroko gauzei trataera didaktikoa ematea...

Esku artean dugun proiektuan, ume batek jolasteko argazki makina ekarri zuen etxetik, amak barraketan erositakoa. Makina bakar bat egoteak hainbat arazo ekarri zuen gelara: denek eta momentu berean nahi zuten eta jabea ez zegoen luzaro bere makina gabe egoteko prest...

Hori zela eta, bakoitzarentzat makina bat egitea proposatu genien umeei. Denen adostasunarekin, gogoarekin eta poztasunarekin lanari aurre egitea erabaki zen. Beraz hemen daukagu gure **Lan proiektua:** Argazki makina bat egitea.

### 2- ZER EGIN NAHI DUGU (Lan Proiektua).

Lanarekin hasi aurretik ezinbestekoa izango da beste urrats batzuk ematea:

#### 2.1- Egin nahi dugunari buruz umeek dakitena ezagutzea

Horretarako, eta denok elkarrekin jezarrita, elkarrizketa txiki bat izan dugu: "Zer da argazki makina bat?, zertarako erabiltzen da?, erabili duzue sekula?, nolako itxura dauka kanpotik?, eta barrutik?, zein gauzaz dago osatua?". Eta hainbat galdera gehiago.



Zer esanik ez dago, une honetako umeen arteko interakzioak zein ume eta irakaslearen artekoak oso interesgarriak eta aberatsak dira. Umeek aukera izango dute euren esperientzia, ezagupena, etab. azaltzeko eta amankomunean jartzeko.

#### 2.2- Egin nahi dugunaren planifikazioa (ikus irudia . 50. orr.)

Puntu hau guztiz garrantzitsua izan da umeek egin dituzten ekintza eta aktibitate guztietan - gelan, eskolan-. Umeak eurak dira, horrela, prozesuaren protagonistak, egiten dutenaren zergatiak eta zertarakoak ezagutzen dituzte, autonomoagoak bihurtzen dira. Prozesuan zehar ekimena izatera eta erabakiak hartzera behartuta ikusten dute euren burua etengabe.

Edozer egin aurretik zelan egin, zer behar dugun, norekin eta noiz egin..., hau da, planifikazioaren urra-


KOLA
KOLA

tsez jabetu. Irakaslea ez da egiten dakien bakarra, edo zelan egin behar den esaten duen pertsona. Denok ditugu ideiak, gauzak egiten dakigu eta ezagupen horiek martxan ipintzeko gai gara. Batzuetan irakaslearen laguntza behar izango dute, bestetan lagunena, baina umearen gaitasun guztiak kanporatzeko eta aplikatzeko aukerak eman behar dira.

Bagoaz, ba, gure argazki makinarekin. Denok taldean jarraitzen dugu eta aurreko momentuan sortutako elkarrizketaren ondorioz argazki makinaren marrazki bat egingo dugu. Era berean, zein material beharko dugun zehazten eta horien marrazkia egiten joango gara (kutxa handi bat, beste txikiago bat, hodia, soka, dena pegatzeko kola, artaziak, puntzoiak, pintzelak eta tenpera).

Behar ditugun gauza batzuk gelan ditugu, baina ez denak. Sailkatu egingo ditugu, ea zein den panorama....

Eskolan daudenak: pintzelak eta tenpera, kola, soka, puntzoiak, artaziak.

Eskolan ez daudenak: kutxa handiak eta txikiak, hodiak.

Zer egin dezakegu gauza horiek lortzeko?

Eta berriro umeek ideiak botatzen dituzte: etxetik ekarri, alboko gelakoei eskatu, plastikako armairuan bizpairu daude baina ez denontzat beste... Eta etxetik ekartzea ahaztu egiten bazaigu? Alternatiba bakoitzaren alde onak eta ez hain onak aztertzen dira. Eta azkenengoz azken erabakia hartu: etxetik ekarriko ditugu baina inori ez ahazteko nota bat *idatziko dugu* gero amari eta aitari emateko.

Nota ezberdinak *idatziko* dira, bakoitzak ahal duen moduan: batzuk behar diren materialen marrazkia eginez; beste batzuk irakasleari izenak idaztea eskatu ondoren arbeletik kopiatuz; batzuen notak karta erara joago dira agurrarekin, sinadurarekin, besteenak eskematikoagoak,.....

Gelan daukagun egutegian lana noiz egon daitekeen amaituta markatuko dugu, aurretik zein ordutan eta egunetan egin daiteken ondo ikusi ondoren (jolasteko orduak ezin dira horretarako hartu; asteazkenean jolasaldiaren ostean denbora dugu; ostegun arratsaldean ez, igerilekura goazelako...).

Denbora antolaketa honek umeari bere lan erritmoa zuzentzen eta kontrolatzen lagunduko dio. Egutegiko egunak zenbatu ondoren, askotan entzun dugu gelan, espontaneoki, komentario hau: "Lan asko gelditzen da egiteko eta egun gutti, zerbait egin beharko dugu arazo hau konpontzeko".

**2.3- Irakaslearen planifikazioa**

Badakigu umeek zer eta zelan egin nahi duten, baina irakasleak ere espektatiba batzuk ditu. Ikas-irakas prozesu honetan bere planifikazio zehatza egingo du, beraz, erabaki hauek hartzera behartuta dago:

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Umeen arteko kolaborazioa, eta ez irakaslearena bakarrik, bultzatuz, ikasleek elkarri laguntzeko jarrerak izatea.
- Umeei euren arteko iritziak kontrastarazi, bakoitzak berea emanez. Alde positiboak eta positiboak ez direnak aztertu erantzun egokiena bilatzeko.
- Hizkuntzaren garapenean lagundu. Norberaren ideiak eta iritziak ahalik eta argien azalduz denok ulertu ahal izateko.
- Hizkuntza plastikoaren hainbat prozeduratan trebatu: kolatu, margotu, zulatu, moztu.
- Gertatutakoaren errepresentazio grafikoak egin, ahalik eta zehatzen. Bai espazioaren adierazpenean, denboraren adierazpenean, kolore eta formen adierazpenetan.

EDUKINAK

- Umeen arteko laguntza jarrerak.
- Entzutean, eztabaidatzean, iritziak ematean, errespetuzko jarrerak izatea.
- Elkarrizketan mantendu behar diren oinarrizko arauak: banan-banan hitz egin, txandak gorde, azalpenak eskatu.

- Hizkuntza plastikorako prozedurak: marrazkia, kolatzea, zulatzea, moztea.
- Kronologikoki ordenatutako irudien produkzioak.

EKINTZAK

Umeek egin nahi duten argazki makinatik aparte proposatzeko:

- Argazkiak egitea (bakarkako lana).
- Sekuentzia osoari buruzko liburua (bakarkako lana).

IRAKASLEAREN PAPERA

- Proposamenak galderen bidez egin, ideiak eurenak izan daitezen.
- Galdera zabalak egin ahalik eta aukera gehiago emateko.
- Irakaslea izan beharrean laguntzak ematen dituen pertsona bakarra, euren arteko laguntzak bultzatu.

EBALUAZIOA

- Helburu bakoitza zein mailararte bete den zehaztu.
- Ideiak irakaslearen koadernoan idatzi.

Planifikazio lana amaitu ondoren, gure argazki makina egiteari ekingo diogu. Hemendik aurrera, proiektua garatzeko azpian aipatzen diren pausuak emango ditugu.

**3- PROIEKTUAREN GARAPENA.**

Behar ditugun material guztiak gelan ditugu. Inori ez zaio ahaztu zer ekarri behar zen. Gurasoek ere parte aktiboa hartu dute umeei material hori bilatzen laguntzen.

Materiala aukeratu behar da: zein kutxa den egokiena, tamainuak kontutan izan behar dira (kutxak trukatzea ere gertatzen da egokitasunaren arabera....), lagunen artean errezago kutxak elkarri ematea, hodi batzu luzeegiak dira baina erditik moztuz gero primeran gelditukc dira...

Gela prest dago eta materialea ere bai. Aurrera!

Hasi baino ez gara egin eta lehen arazoa. Kutxak tenperaz margotu arren tenpera labandu egiten da, ezin da kutxa margoztu. Zer egin dezakegu?

Eta berriro pentsatzera, ideiak ematera, ideia bakoitza aztertzera, soluzio bidea bilatzera: lehenengo kutxak paperez forratuz gero, tenperaz errez margoz daitezke.

Horrela bagoaz pauso guztiak ematen:

- Kutxak forratu
- Tenperaz margotu eta sikatu arte itxaron.
- Kutxak pegatu. Baina kontuz kolarekin, ia zenbat ipintzen diogun!
- Hodia margotu eta kutxa puntzoitu gero hodia sartzeko (laguntzak eskatu behar dira, txikiek ez dakitelako puntzoia zehaztasunez erabiltzen, baina nagusiak bai).
- Soka ipini, baina nola pegatu? Kolaz, zeloz...?

## ETA ARGAZKI MAKINA AMAITUTA GELDITZEN DA!

Baina zertarako dira argazki makinak?, argazkiak egiteko ezta? Ba goazen argazki bat egitera!

Argazkia egiteak objetu horren irudia egitea da, baina ez edozein irudi, argazkiak errealitatearen kopia izaten dira. Eta berriro hainbeste edukin: kontuz formarekin, tamainuarekin, koloreekin ...



zer egin dezakegu? Umeekin elkarrizketa luze bat izan ondoren hauxe zen proposamena: lan guztiaren ipuina egingo dugu. Umeak prest zeuden prozesu osoa sekuenziatuta margotzeko.

Horretarako folio erdiak hartu, bakoitzak behar ahala hartzen zuen papera, eta orri bakoitzean prozesoaren une bat marrazten zuen. Aipatu beharrik ez dago, aurretik denoen artean prozesoa berbalizatu egin genuela.

Azpian irakasleak idazten zuen une horren deskribapena eta, amaitzeko, orri guztiak grapatu, liburu erara.

Prest geneukan denok gure argazki makina, argazkia eta liburua etxera eramateko... eta bidean argazki politak egiteko ere bai!.

Zenbat ideia, zenbat erabaki, zenbat laguntza, zenbat ahalmen ezberdin erabili behar (motoreak, kognitiboak, harremanak,..), hizkuntza era ezberdinetan landuta (idatzia, ahozkoa), zenbat prozedura ezberdin erabili behar (kolatu, margoztu, idatzi, sailkapen dikotomikoak,...), eta denak argazki makina bat egiteko, guk nahi genuen zerbait egiteko.

## 4- SINTESIAK ETA ONDORIOAK.

Gauzatu dugun lanaren sintesia egiteko ordua heldu da. Zer eta nola egin ikasleek konklusioak ateratzeko premia ikus dezaten?. Une honetan, irakasleak galdera bat luzatzen die umeei: "Inoiz argazki makina hori apurtzen bazaizue, edo aitak eta amak jakin nahi badute zelan egin duzuen, edota berriro gogoratzeko

## 5- PROIEKTUAREN EBALUAKETA.

**Hasierako ebaluazioa.** Esan dugun bezala, argazki makinetaz zer dakigun ordenatu dugu proiektuaren hasieran. Egindako kartoizko argazki makina ikusirik eta egiteko prozesuari buruz umeek ema-

ten dituzten azalpenak kontuan izanda, proiektua baliogarria izan den ala ez jakingo dugu.

Lehenengo momentutik, umeen ideiak eta ekimenak jaso egin dira. Taldeko ume bakoitzak azaldu zituen argazki makinetaz zituen aurre-ideiak eta gelan argazki makina bat egiteko proposamenak. Eztabaida saio horietan gure noten tartean proiektuaren interesa argi agertuko da.

**Garapenean ebaluazioa.** Proiektua lantzen egon garen bi asteetan, irakasleok jarritako helburu didaktikoen aspektu batzuk behatu eta gure koadernoan jaso ditugu.

<ins>Umeen iritziak</ins>. Hemen azalduko da taldearen heterogenitatea eta partaide bakoitzaren originaltasuna. Ume bakoitza bere osotasunean espresatuko da eta irakasleok, planteamendu globalizatzaile baten bidez, espresabide hauek errespetatu behar ditugu. Izakera bakoitzak lan prozesuan leku bat aurki dezan entzumena erne euki behar dugu irakasleok.

<ins>Umeen inplikazioa</ins>. Proiektuaren momentu desberdinetan ume bakoitzaren inplikazioa aztertuko dugu. Nork eskatzen duen laguntza, nor agertzen den pozik, nor dabilen galdezka, nor saiatzen den arazoei irtenbidea bilatzen, etab.

<ins>Umeen jarrera</ins>. Egindako beste proiektuetan bezala, argazki makina egiterakoan hau behatu dugu: txikiek haundiei esker ikasten dute eta handiek txikiei azaltzeko egiten duten lanari esker ere pilo bat ikasten dute. Adin desberdinetako umeen artean laguntza egoera asko sortzen dira.

<ins>Prozeduren menperatze maila.</ins> Prozedurak landu ditugu bereziki proiektu honen bidez. Umeek jostailu bat egiteko estrategiak bilatu eta esperimentatu dituzte eta irakasleok hor egon gara, inolako juizioak eman barik, laguntza *teknikoa* eskaintzen.

**Azken ebaluazioa.** Umeek egindako txostena ebaluatzeko tresna bat da. Ume bakoitzak bere erara azaldu du jarraitutako prozesua eta, azalpen hori besteek ulertu dutela ikusten duenean, hortxe du autoebaluaziorako baliabide bat.

Planteatutako lana betetzen denean, umeek planifikazioaren ebaluaketa ere egiten dute. Umeak gai dira hasieran jarritako helburu zehatzak eta egokiak ziren ala ez aztertzeko, baita denboralizazioa eta iharduerak baloratzeko ere.

Eta amaitzeko aipatu nahi dugu, prozesuan zehar, planifikatu gabe zeuden hainbat aspektu agertu direla. Honela, umeek gogoratu dituzten ideia edo ekintza berriak, euren arteko interakzioen eraginez jarrera berriak edo ezberdinak..., guzti honek leku bat izan du gure planifikazio malguan.

Gertatutako guzti hauek ebaluaketa egiten dugunean jasoko ditugu, hurrengo planifikazio batean kontuan izateko, umeei buruzko informazio gehiago izateko, gure lana egokitzeko... Eta era honetan proiektuak eginez jarraitu..



# Ekin lanari!!


Arrasateko Umezaintza

*Rosa Diaz, Matilde Umaran, Amaia Zurikarai*
Sopuertako La Baluga Ikastetxea

Ondoko orriotan aurkezten dugun lana esperientzia bat da. Sopuertako (Bizkaia) La Baluga Herri Eskolan egin dugu 5 urteko umeen gelan.

Hizkuntza plastikoari buruz egiten den lana aztertu dugu komunikazioa-errepresentazioaren alorrean eta ondoko ondorioak atera ditugu:

1. Urteetan, ikasleek hainbat esperientzia plastiko egin dute, baina geuk erabakita zer egin eta nola.

2. Ikasleek lan askea egiten zutenean, erakutsi ziguten gai zirela, 5 urtean aritu ondoren, oinarrizko teknikak erabiltzeko: eurak sortzen zituzten objetuak geure laguntza barik: koroiak, karetak, kometak, egazkinak, txotxongiloak... Materiala eskura izatea behar zuten soilik.

Hausnarketa hauek egin ondoren, asteko programazioan beste aktibitate bat txertatzea erabaki genuen: “Proiektuak”. Helburua genuke objetuak egitea, baina beti ere haurrek berek pentsatutakoak, diseinatutakoak eta egindakoak. Irakaskasleok lagundu, animatu eta orientatu egingo genituzke umeak euren lanetan.

Honakoa litzateke aktibitatearen estruktura:

.Ideia aurkeztea.
.Proiektuak erabakitzea.
.Materiala biltzea.
.Lanari ekitea.
.Erakusketa.

Beharrezkoa zen familiekin hitz egitea umeei materiala bilatzen laguntzeko. Lagundu bai, baina eman ez.

Proiektu hauek zirela medio hainbat arlotako lana uztartu behar zuten: Inguruaren Ezaguera eta Matematikak (objetuak eta haien ezaugarriak ezagutzea) eta adierazpen plastikoa; izan ere, teknika desberdinak erabili behar zituzten.

Lanari ekin aurretik jakinmina sortu genuen: ostegun arratsaldean zerbait berezia egingo genuela jakinarazi genien. Ziur-ziur ere ez geundenez, gelan bi irakasle egongo ginela erabaki zen, egoera hobeto kontrolatzeko.

## LEHEN EGUNA

Taldean saio bat egin genuen eta proiektu bat zer zen azaldu. Bi ideia nagusi azpirramatu ziren:

-Bakoitzak nahi zuena egin zezakeen.
-Zer egin nahi zuten erabaki ostean, pentsatu behar zuten nola egin eta ze materialekin.

Apurtxo bat kostatzen zitzaien erabakitzea zer egin. Hortaz, ideia zaparrada egitea erabaki genuen. Ideiak arbeleratu egin genituen. Hara batzuk:

boloak, etxea, panpina, kometa, arrantzan egiteko kainabera, motorra.

Ondoren, esan genien bakoitzak erabaki behar zuela zer egin nahi zuen. Eta horrenbestez, saioa amaitu zen.
Saioak, gutxi gorabehera, 15 minutu iraun zuen.

## BIGARREN EGUNA

Aste guztian ez ziren proiektuak berriro aipatu.



Arrasateko Umezaintza

Bigarren saioaren hasieran, galdetu genuen zuzen-zuzenean:

"Gogoratzen duzue zer esan genuen proiektuei buruz?"

Eta berehala bota zuten ideia nagusia: "Bakoitzak nahi duena egin ahal du. Pentsatu behar dugu nola egin".

. Bigarren galdera izan zen: "Pentsatu duzue nola egin?"

Hiruk bakarrik erantzun zuten ezetz.

Bagenekien, jakin, positiboa izango zela hainbat lagunek proiektu bat egitea. Baina oraingoan, bakoitzak berea egitea nahi genuen. Tarjeta bana eman genien euren izenak idazteko, proiektuak belarrira esan eta guk tarjetan kopiatzen genituen.

. Tarjetan izena eta proiektua idatzi ostean, talderatu egin ziren. Hiru proiektu zeunden errepikaturik.



Eurak esan zuten ezin zela proiekturik errepikatu eta aldatu egin zituzten.

. Saioa bukatu zenean tarjetak beste irakasleei erakusteko esan genien, eta kontatzeko zer egin behar zuten.

Saioak, gutxi gorabehera, 30 minutu iraun zuen.

## HIRUGARREN EGUNA

Taldetan hitz egiten aritu ziren: zer egin behar zuten eta nola. Irakasleok taldez talde ibili ginen elkarrizketak bideratzeko eta esaten zutena idatziz jasotzeko.

Proposatu genien euren proiektuaren marrazkia egitea. Bakoitzari bere orrian idatzi genion:

"Nik... egingo dut"

Saioak, gutxi gorabehera, 30 minutu iraun zuen.

## LAUGARREN EGUNA

Astean zehar guk ez genuen gaia aipatu, materiala eurak ekartzea nahi genuen.

Proiektuaren egunean inork ere ez zituen ekarri behar zituen gauzak. Ezin izan genuen ezer ere egin, baina oso positiboa gertatu zen saioa, zeren eztabaida sortu zen ea nor gogoratu behar zen gauzekin, arduradun bat izendatu behar ote zen, etab.

Denon artean, zer behar zen aztertzea erabaki genuen eta nork ekarri ahal zituen. Guk geuk ahal zenik eta gauza gutxien eramateko asmoa geneukan.

Saio honetan mutiko bat asko estutu zen ez zekielako nola egin proiektua eta zeinekin ere ez.

## BOSTGARREN EGUNA

Astean zehar guztiek ekarri zuten behar zutena, bik izan ezik. Ikusi genuen ea denon artean bageneukan bi horiei uzteko beste material.

Guk ez genekien lana nola antolatu eta erabaki genuen eurak eman behar zigutela pista bat.

Bakoitzak gauzak uzteko txoko bat bilatzeko esan genien, bestei trabarik ez egiteko. Kutxa handiak edo kartoiak zituztenak lurrean jarri ziren eta material txikia zutenak (oihalak, orratzak...) mahaietan.

Eurai laguntzeari ekin genion. Ideia argi zutenekin hasi ginen eta laguntza konkretuak eman (plantilak loreak egiteko, pelotak...)

Orokorrean, lehen momentuan oso despistatuta geunden denok, baina segituan lanari oratzen hasi ziren.

## SEIGARREN EGUNA

Soilik haur batek bukatu zuen proiektua aurreko egunean. Hurrengo saiorako, beste proiektu bat egiteko materiala ekarri zuen.

Denok egon ginen zentratuago, geu ere hobeto maneiatu ginen eta 4 haur falta izan ziren -asko igarri genion horri-.

Erabaki genuen margotzeko gauzak plastitako gelan egingo genituela, leku gehiago dago-eta. Han zeudenek bakarrik egiten zuten lana, guk ku-ku batzuk egiten genituen ea zer moduz ari ziren ikusteko.

Hurrengo 2 saioetan batzuek bukatu egin zuten lana eta beste batzuek hasierako ideia aldatzea erabaki zuten; izan ere, hainbat bider saiatu eta gero, ezin zuten eta guk ez genekien nola lagundu.

Traktorea——-Txakurrarentzako etxea
Motorra———-Autoa

Bukatu bezain pronto, beste bat egin nahi zuten; askok besteei ikusi ziotena egin nahi zuten.

Guk ez genien uzten proiektu gehiago hastea. Denok amaitzea nahi genuen eta azken erakusketa egin. Baina positiboa izango zen dinamika horrekin jarraitzea.

Azken erakusketa egiteko, apaindutako mahai bat jarri genuen eta haren gainean proiektuak.

Neska-mutikoek, gurasoek proiektuak derrigorrez ikusi behar zituztela-eta, ekarri egin zituzten. Baita eskolako autobusekoak ere!

Lehen proiektu honetatik, ondoko konklusioak atera genituen:

-Euretako askok kartoizko kutxa handiak erabili zituzten. Gozatu egin zuten berriro ere euskarri handiak erabilita.

-Lan hau bakarkako lana izan zen; orain talde txikitan nola zebiltzan ikusi nahi genuen.

-Batzuetan neska-mutikoak ezer egin gabe egoten ziren. Ez zeukatenez garbi zer egin behar zuten ez zekiten nondik hasi. Eurei ziurtasun falta sortzen zitzaien baina guri zaila egiten zitzaigun kontsignak berehala ez ematea, horrela ohituta gaude-eta.

-Eurak bazuten ideia bat egin nahi zutenari buruz, baina ez zuten planteatzen, esaterako, "nola lotuko ditut nik pieza hauek?". Galdera hori materiala esku artean zeukatenean sortzen zitzaien.

## Egin ditugun proiek

LEHEN HIRUHILABETEA

. TXAKURRENTZAKO TXABOLA
. URTEBETETZEKO KOROIA
. KOMETA
. PUZZLEA
. ETXEA
. 2 GAZTELU
. LOREAK ETA LORONTZIA
. ARMIARMAK
. BOLOAK
. ZALDIA
. OHEA
. AUTOBUSA
. BALOIA
. ARRANTZAN EGITEKO KAINABERA
. KITARRA
. TRENA
. 2 AUTO

HIRUGARREN HI

. KARTA-FAMILIAK
. LOREAK (2 UMEK
. ROBOTA (5 UMEK
. TXITOAK (6 UMEK
. KOMETA (3 UMEK


Arrasateko Umezaintza

-Hainbeste proiektu desberdin nahaste-borraste handia zen guretzat eta bakoitzak berea egiten zuenez, ezin zioten elkarri lagundu. Baina nahiz eta taldeka ez egon, elkarren ondotxoan egiten zuten lana eta euren artean hitz egiten zuten eta ideiak trukatu.

Bigarren hiruhilabetean ez zen proiekturik egin; hirugarren hiruhilabetan berriro ere ekin genion.

Esan genienean ostegunean zerbait berezia egingo genuela, berehala igarri zuten zer zen: zer egin nahi zuten esaten hasi ziren.

-Oraingoan 2 taldek 2 proiektu aukeratu behar zituzten eta taldeko bakoitzak lehenengo proiektu bat eta gero bestea egin beharko zituen. Modu honetara, sei proiektu desberdin egongo ziren asko jota, 3 neska-mutikoko taldetxotan.

Azkar antolatu ginen. Aguro aurkeztu zituzten euren erabakiak korroan. Egun hartan bertan proiektuaren marrazkia egin zuten. Oraingoan kontsigna zen marrazki bat egitea titulu honekin:

tuak

HILABETEA

3 UMEK)

"Nik... egingo dut"

baina alde batean proiektuak agertu behar zuen eta bestean behar izango zituzten materialak eta tresnak. (Informazio guzti horiek arbelean eta panaletan jaso genituen).

Hurrengo saioan lanari ekin zioten. Nahiz eta guztiek ez zuten materiala ekarri, denak ekarri zuten hasteko zer-



bait. Oraingoan gelan genuen botatzeko materiala gehiago erabili genuen (kartoizko tuboak, kaxak, makilak,...).

Antolaketa modu honetan honako ondorioak atera genituen:

-Talde txikia estruktura ziurragoa zen eurentzat; bakoitzaren ideiak hobeto aprobetxatzen ziren, elkarri langundu ahal zioten eta atseginagoa zen horrela lan egitea.

-Talde batzuk guztiz autonomoak izan ziren. Laguntza puntuala baino ez zuten behar izan. Harrituta geratu ginen.

Kometak: laguntza buztaneko trentza egiteko.

Kartak: laguntza hausnartzeko zenbat karta berdinek egiten zuten familia bat egiteko.

Robotak: gorputzaren aldean burua ez zela proportzionatua esan genien.

Beste bi taldek gure laguntza gehiago behar zuten, aplikatutako teknika berria zaila zen eta.

Loreak: petaloak makilari pegatu.

Txitoak: aetilezko ponpoiak egin.

Guztiek bukatu zituztenean proiektuak (6 saio) beste lan bat egin genuen.

-Ahoz azaldu zer egin zuten eta lan sekuntzia marraztu.

-Azken ekoizpena marraztu, bai eta erabili zituzten materialak.

Azken hau hasierako orrialdearekin alderatu genuen. Hurrengoko saioan gela apaintzen eman genuen eta berriz ere gurasoak etorri ziren. Gonbidatzeko txartela eta guzti egin zuten umeek!!

"Kaixo ama eta aita.

Ostegunean etorri (behar zarete) gure gelara.

Amaitu ditugu proiektuak!"

Orri bat fotokopiatu genuen denon sinadurekin eta eurak testua kopiatu zuten arbeletik.

Proiektuen bi momentuetan zera ikusten dugu:

-Lanak talde txikian egitea formula oso ona da, baina ez dugu uste batzuk bakarka egiteari utziko diogunik.

-Soilik irakasle bat balego saiatuko ginateke talde bakoitzarentzat proiektua egiteko egun bat finkatzen, baina ez genuke horren giro ona izango.

-Oraindik gehiago itxoin behar dugu gure ideiak eman aurretik.

-Ona da aurretik hainbat lan egin izana hainbat teknika erabiliz, horrela baliabide gehiago dute-eta.

-Eskolan materiala bageneukan ere, positiboa izan da eurak etxetik ekartzea. Euren artean sortu zen batak besteari materiala uztea, beste batzuentzako materiala ekartzea (boteilak tabernatik, makila, paperezko tuboak...).

-Gurasoek izugarri ondo erantzun dute. Ideiak eman dizkiete umeei eta materiala bilatzen lagundu.

Ohiartzunak

# Bidaia pedagogikoa Italiara




Pilar Hernández Castaño

Pistoia. Area bambini

“Infancia, educar de 0 a 6 años” aldizkariak bidaia pedagogikoa antolatu zuen Italiara iazko maiatzaren 1-5. Estatuko 31 lagun joan ginen hainbat autonomiatatik, baina guztiok ere Haur Hezkuntzan lan egiten dugunak. Bidaian hainbat ikastetxe ikusi genuen 0-3 eta 3-6 urtekoentzat, bai eta beste zerbitzu batzuk, beraiei zuzendutakoak (Tipologia Berrikoak izenekoak) Bolonian, Modenan eta Pistoian.

Ikusi genituen ikastetxeak desberdinak ziren, batez ere kokatuta dauden inguruak eraginda; hala ere, guztiek dituzte ezaugarri amankomunak: hezkuntza-marko global batean kokatzen dira.

## 1. POLITIKA EGOKIA TXIKITXOENENTZAT

Boloniako Dokumentazio eta Formazio Laborategira egin genuen bisita. Bertan hitzaldi bat entzun genuen Patrizia Orsola Ghedini-ren eskutik (Haurtzaroaren Bulegoko arduraduna Emilia Romagna eskualdean). Azaldu zizkigun azken 25 urteetan eskualde horretan bultzatu den hezkuntza-politikaren ardatz nagusiak.

Haurtzaroari zuzendutako politika bultzatu dute eskualdeko eta herrian herriko erakundeek eta hiru aro bereiz daitezke, elkarren jarraibidea direnak.

1) 70 hamarkadatik 80 hamarkadaren erdiraino

Bultzakada izugarria ematen zaizkie 0-3 eta 3-6 arteko ikastetxeei honako ardatzetan oinarrituta: neskatila-mutikoak, gizabanako sozialak diren aldetik, eskubideak dituzte; bestetik, familiek zerbitzuetan parte hartzen dute; eta, azkenik, irakasleen prestakuntza behar-beharrezkoa da. Beraz, teknikariak bilatzen dira: batetik, zerbitzuen koordinazio pedagogikoaz arduratzen dira, eta, bestetik, eskualdeetako irakasleen aktibitateez.

2) 1985-1990

Zerbitzu bereizgarriak edo diferentzialak sortzea eta garatzea bultzatzen da. Zerbitzuok malguagoak izanik, gizarteak dituen behar berriei egokitzen dira. Horrela, bada, zegoen egoera (zerbitzu mota bakarra, eskolaren arau eta ordutegi estuak) hobetu egiten da "Tipologia Berriko" zerbitzuak sortzen direlako. Berauek biltzeko guneak dira, eta ez soilik txikientzat, familientzat ere bai.

3) Boloniako Konferentziatik (1990) gaur egun arte

Ahaleginak egiten dira gainditzeko haurtzaroarekin lan egiten duten instituzio eta sektore desberdinen



Pistoia. Area bambini

(eskola, gizartea zein medikuntza) arteko zatiketa eta koherentziarik eza. Horretarako, gai bakarraren inguruan disziplinarteko lan-taldeak bultzatzen ari dira.

## 2. HAURREN ESKOLAK

**Ikastetxeen tipologiari** dagokionez, bisitatu genuen herri bakoitzean eskola munizipalak daude 0-3 eta 3-6 urtekoentzako. Eta gainera, eskola pribatuak eta estatalak 3-6 urtekoentzako. Koordinazio pedagogikoa eta formakuntzakoa bakarra da bi zikloak dituzten eskolentzako.

**Ratioak** honakoak dira:

Zentruak 0-3 urtekoentzat: 0-12 hilabete 1/4; 1-2 urte 1/6; 2-3 urte 1/10

Zentruak 3-6 urtekoentzat: 2/25

**Irakasleen ordutegiak** desberdinak dira ikastetxe munizipaletan eta estataletan.

Munizipaletan-Astean 30 ordu ikasleekin eta 200 ordu urtean formatzeko, planifikatzeko, koordinazio saioetarako...

Estatu-eskoletan: Astean 25 ordu ikasleekin eta 80 urtean formaziorako, etab.

**Espazioari eta ekipamenduari** dagokionez, ikusi genituen zentruek berdegune zabalak dituzte, zuhaitzak eta egurrezko estrukturak hainbat jolas egiteko. Barruko espazioa ez dago gelatan zati-zati eginda hemen moduan, baizik eta gune zabalagoak ditu, elkarrekin komunikatzen direnak.

Altzariak desberdinak dira ikastetxe guztietan. Modu horretan, giro atseginak, estandarizatu bako-



Pistoia. 0-3. Lago Mago

ak sortzen dituzte. Kalitate estetikoa bai geletan, sarreretan, pasiloetan zein komunetan zaintzen da.

Ikastetxe guztiek, 3-6 urtekoentzat ere bai, atsedena hartzeko guneak dituzte hamakekin. Txikitxoak nekatzen direnean, beraz, badute non lo egin. 0-3 zentruetan, adin bakoitzeko haurrek badute leku bat garbitzeko edota haur-oihaltxoak aldatzeko. Irakasleak bien bitartean, leku horretatik ikusi egin dezake zertan ari diren beste umeak.

**Jangelan** jatea oso zabalduta dago. Irakasleek beraiek eta laguntzaile batzuek zaintzen dituzte haurrak. Adin bakoitzeko haurrek beren ikasgelan jaten dute; izan ere, bazkalorduan, ikasgela jangela bilakatzen baita. Honen bidez, haurrak, denok tropelean ez ibiltzea lortzen da eta txikitxoenak ez izutzea.

**Irakasleen etengabeko formazioa** dela-eta, estruktura bakarra da 0-3 eta 3-6 zentruentzako. Estruktura hori koordinatzaile pedagogiko sare zabal batek laguntzen du eta koordinatzaile bat egoten da bospasei zentrurentzat.

Koordinatzaile hauek, etengabe, eskolekin harremanetan egiten dute lana. Kurtso bakoitzaren bukaeran, irakasleen interesak eta premiak kontuan hartuz, formatzeko proposamen bat egiten dute. Zentruek proposamen hori hausnartu egiten dute, eta gero, denon artean programa definitu egiten da.

Programa hori ikastaroa izaten da normalean, eta aurkeratu diren gaietan pertsona adituek ematen dute. Gero, zentru bakoitzak aukeratutako gaia martxan jartzeko plana egiten du. Esperimentatu, aztertu, eta beharretara egokitzen du behar den beste.

Eskola bakoitzean egindako proiektuak eta esperientziak Dokumentazio eta Formazio Laborategietan jasotzen dira (ikusi genuen bat Bolonian). Eta Laborategia zentru guztietako irakasleen esku geratzen da, edozein kontsulta egin nahi badu ere.

## 3. TIPOLOGIA BERRIKO ZENTRUAK

Patrizia Orsola-ren ustez, zentru hauek eta haur eskolak desberdinak dira, honako arrazoiengatik:

"Zentru hauek zuzenduta daude batez ere egun erdiz lan egiten duten gurasoei, etxeko-andreei edota umea familiako batekin edo zaintzaile batekin uzten duten familiei. Hauek guztiek, haurrak beste haur batzuekin egotea inportantea dela uste dute.

Proposamenak anitzak dira: ordu batzuetarako zerbitzua, jolasteko zentruak, haur eta heldu biltzeko eta elkarrekin egoteko zentruak (gurasoak, aiton-amonak, kanguroak...), eta ordutegi zabala..."

Ikusi genituen zentruen artean, batzuk eskoletan bertan daude. Horiek, astean bi bider, eta 3 ordutan zehar, zabalik daude neskatila-mutikoentzat, eskolarizatuta egon ala ez. Familiako batekin bertaratu ahal dira eta elkarrekin egin ditzakete hainbat aktibitate prestatuta dauden lekuetan: liburuak irakurri, objetuak egin botatzeko materialekin, aktibitate motrizak, etab.

Beste zentru batzuk, ordea, eraikin espezifikoetan daude. Goizetan eskoletako neskatila-mutikoei zabaltzen dizkiete ateak, bai eskolarizatu gabeko haur taldeei ere, batzuk urte guztian joaten dira-eta aldian-aldian. Arratsaldez joan nahi duten familiak euren umeekin batera hartzen dituzte, beste zentruek bezala.

## 4. HAUSNARKETA ETA ONDORIOAK

Egin dugun behaketaren bidez, egiaztatu dugu eskualdeko eta herrian herriko aginteek egin duten apostuak baduela islada ikastetxe eta zerbitzuen eguneroko bizitzan; nahiz eta badituzten hutsuneak eta kontraesanak.

**Hona hemen nire ustez kalitatearen adierazgarri direnak:**

- Ikastetxeen ratioa. Proportzioan, gure Komunitateko ikastetxeen aldean, doble irakasle dute ikasle kopururako.
- Irakasleak etengabeko formatzeko politika. Aditu batek diseinatzen du herrian eta herrirako eta haur hezkuntzara mugatzen da bakarrik. Ikastetxea eta aditua koordinaturik dauden kopurua alderatuz gero gure Komunitateko aholkularitza zerbitzuekin (PATekin), oso aurretik dabiltza.

Hainbeste aditu egoteak zentruekin etengabeko hartu-emana dakar. Eta honek irakasleen kualifikazioan eta motibazioan eragin garbia du: irakasleek badakite beraien praktiken berri ematen eta justifikatzen, eta hori guztia hezkuntzaren helburuen ikuspegitik. Era berean, lanean lagundua eta baloratua sentitzen da.

- Beste alderdi positibo bat litzateke, ahaleginak egitea haurrei zuzenduta dauden zerbitzu desberdinak integratzeko eta koordinatzeko. Horrek parte hartzen duten sektore desberdinak inplikatzea dakar; ondorioz, sektore horiei etekin gehiago ateratzea. Beraz, hiritarrek kontzientzia hartzen dute haurren beharrez eta eskubideez.
- Barruko zein kanpoko espazioek duten gustua, kalitate estetikoa, aniztasuna eta egokitasuna haurren beharrei eta hezkuntza-helburuei begira.
- Bide berriak urratzen hasi dira, familien egoera eta behar desberdinei egokitzen zaizkien zerbitzu-mota zenbait eskainiz. Bai eta haurrentzako lanean jardunarren sektore eta lanbide desberdinak integratzea (hezkuntza, medikuntza eta sozialak).

**Honako hutsune eta kontraesanak aipatuko genituzke:**

- Zenbait hutsune ikusi ditugu azaldutako planteamendu pedagogikoen koherentziaren eta errealitatearen artean. Modena hirian eta Boloniako ikastetxeren batean aldea ikusi dugu planteamenduen eta errealitatearen artean.
- Alderdi metodologikoei dagokionez, kasuren batean aktibitate pobre batzuk ikusi ditugu; eta, zenbaitetan, irakasle-ikasleen arteko interakzioa gauza bera iruditu zaigu. Beste batzuetan, haurren iniziatiba eta sormena garatzearen kontrako praktika batzuk.
- Italiako hezkuntza-sistemak badu lege bat (Asilo Nido legea deritzana). Horrek konpetentzia asko ematen dizkie eskualdeetako eta herrietako aginteei (Estatuak dirua jartzen du, eskualdeak programa eta herriak martxan jarri). Halere, ez du horrelako legemarkurik 3-6 urtekoen hezkuntza-zerbitzuetarako, izan publiko ala pribatu.

Ondorioz, gobernuaren eragina mugatuta geratzen da eskualdeetan eta herrietan 3-6 urtekoentzako zerbitzuak programatzeko, garatzeko, kualifikatzeko eta

kontrolatzeko. Horrela, bada, 0-3 eta 3-6 zerbitzuak erlazionatzeko ekimenek herrian herriko polikarien arduraren eta borondatearen arabera dago.

Lan baldintzak ez direnez berdinak 3-6 urteko zentruetan, ez dira berdin implikatzen programetan, alderdi metodologikoetan edota parte hartzeko estrukturetan, egiten diren ahaleginak ahalegin.

Gure Komunitatean gertatzen dena, berriz, kontrakoa da Italiko egoeraren aldean. Hemen badago lege–marko bakarra Haur Hezkuntzako bi zikloetarako (LOGSE eta LEPV). Haatik, gaurdaino, hezkuntz administrazioa 3-6 urteko ziklora mugatu da ia-ia. Eta hobe daitezkeen alderdiak baldin badaude ere, esan daiteke kalitate maila nahikoa ona lortu dela ziklo honetan.

Ez da gauza bera gertatzen, nire ustez, 0-3 zikloarekin. Hezkuntz Departamentuak, gaur egun, ez du oraindik legeak ematen dizkion potentzialtasunak garatu zikloa planifikatzeko, erregulatzeko eta koordinatzeko beste administrazio publiko eta gizarteko erakunde batzuekin batera. Aitzitik, gauza konkretuak egiten ditu (esate baterako, 2 urtekoentzako gelak zabaltzea ikastetxeetan) eta ez du hezkuntza-politika argia, koherentea eta kalitatezkoa eskaintzen dituen zerbitzuetarako.

## ❑ KONKLUSIO GISARA, ZERA PROPOSATUKO NUKE GURE KOMUNITATEKO HAURTXOEKIKO ARRETA HOBETZEKO:

- Gizarteko, hezkuntzako eta adiministrazioko sentsibilitatea handitzea haurtxoen behar eta eskubideei dagokienean.

-0-3 urteko zikloa erregulatzea, planifikatzea eta garatzea. Haur Hezkuntzaz arduratzen diren erakundeen arteko koordinazioa bai eta hauen eta familien artekoa ere.

-3-6 zikloaren kalitatea hobetzea, batez ere etengabeko formazioari eta laguntza bereziari dagokionez.

- Orotariko hezkuntza zerbitzuak bultzatzea eta orain daudenak malgutzea. Hala, egoki daitezen haurtxoen beharrei, egoera sozial desberdinei eta familien eskariei.

-Haur Hezkuntzaz arduratzen diren erakunde eta talde desberdinen arteko interakzioa eta laguntza bultzatzea, gaur egun administratiboki eta burokratikoki banatuta daude-eta, haurtxoendako politika bateratua egitea delarik helburu.

Patrizia Orsolak dioen bezala, "Gauza asko dugu egiteke. Baina burokrazia hiritarren -eta noski, haurtxoen- eskakizunetara eta eskubideetara makurtzea lortzen dugunean, orduan bai, esan izango dugula ZEIN POLITIKA EGOKIA TXIKITXOENTZAT"



Pistoia. Area bambini



Pistoia. 0-3. Lago Mago

# Freineten pedagogia eta iharduera gaur



*Euskadiko Herri Eskolaren Mugimendu Kooperatiboa*

Arrasateko Umezaintza

1996. urtean, Freinet jaio zela 100 urte betetzen dira. Frantziar irakasle honek, eguneroko lanean oinarriturik, haur bakoitzari erantzungo zion pedagogia herrikoiaren zutabeak eraiki zituen. Haren jarraitzaileok *ESKOLA MODERNOA* deritzan mugimenduaren bidez koordinatzen dugu gure lana, bai eztabaidak eta bai zalantzak: elkarlanean eskola publiko herrikoia lortzea dugu helburu.

Langile Ikastolako irakasle eta gurasoek aspaldi egin genuen topo Freinet-en pedagogiarekin. Eta baliagarria izan zitzaigun eskola berri bat eraiki eta sendotzeko. Era berean, irakasle talde bat partaide gara Euskadiko Herri Eskolaren Mugimendu Kooperatiboan (E.H.E.M.K.). Aurtengo urtea, beraz, ez dugu joaten utzi nahi izan Freineten gaurkotasuna aipatu eta kaleratu gabe. Ildo horretatik antolatu genituen erakusketak eta hitzaldiak Bilbon, Donostian eta Gasteizen urriaren 21-22-23.

## FREINET ETA *ESKOLA MODERNOAREN* GAURKOTASUNAREN ZERGATIAK

### 1. BERE OINARRIAK

-Balore unibertsaletan oinarrituta dagoen pedagogia delako: elkarkidetza, autonomia, ardura.

-Haurra duelako abiapuntu.

-Kanporantza irekita dagoelako: eskola, familia, herria, kultura, ingurune soziala.

-Lanerako tresnak eskuratzen laguntzen duen pedagogia delako. Garrantzitsua da ikasten ikastea, etorkizunean aurre egiteko gai izan daitezen era guztietako berrikuntzei eta zailtasunei.

-Hezkuntza-Zientziek pedagogia honi ikusten dioten baliagarritasuna honako alderdietan datza:

a) aprendizaia globalizatua

b) pertsonalizatutako estrategia kognitiboak erabiltzea

c) estimulagarriak diren egoerak proposatzea

d) ingurune estimulagarria eta ziurra eskaintzea

e) aprendizaia oposaketak eta konparazioak eginez eta okerrak zuzenduz bultzatzea.

### 2. FREINETEN PEDAGOGIA INSPIRATU ZUTEN OINARRI ETA TEKNIKEN BALIAGARRITASUNA

-Metodo naturalak ziurtatzen du ikasle-irakasleek energia sortzailea askatzea. Eta kultur ondarea errespetatzea.

-Aurreko plangintza eta hurbilpen esperimentalak lehen eskola urteetatik landuz gero, haurrak ikerketa zientifikoa garatzeko jarrerak bereganatuko ditu.

-Espresio askea baloratzeak kultur ezberdinetako haurren arteko benetako trukaketak egiteko bidea zabaltzen du.

-Gelako elkarlanerako antolaketak biziki laguntzen du haurrak gizarteratzen eta elkarkidetzen.

-Testu librea, korrespondentzia, inprenta, eskolako egunkaria, eskolako erakusketak eta hitzaldiak, ikus-entzunezkoak eta teknologia berriak gerturatzeak, XXI.menderantz doan munduarekin harremanetan egotea laguntzen diete neska-mutilei.

### 3. FREINETEN PEDAGOGIA MUNDU ZABALEAN DAGO EZARRITA

Mundu zabaleko hezitzaileek arazo berdintsuak ditugu gaur egun. Freinet eta *Eskola Modernoaren* lehenengo sortzaileek egin zuten modu beretsuan, bakoitzak bere kulturatik abiatuta esku hartzen du.

Prozesu hauek Frantzia, Tunisia, Brasil, Kanada, Japonia eta beste herrialde batzuetako egoera ezberdinetan egokitu dira.

Honek, XXI. mendearen atarian daukagun ezaugarri bikoitzari erantzuten saiatzen direla frogatzen du: bata, arazoak munduratzea; bestea, bakoitzaren ezberdintasunekiko benetako errespetua.

Freinetek aldarrikatu zuen hezkuntza, filosofia eta psikologia guztia, "Pedagogia abiapuntu aldaezinetan" jasoa dago. Hauek ekintza hezitzaile guztiak gidatu beharko lituzketen oinarriak dira.

Hona hemen oinarririk aipagarrienak:

- Lelo bat izatea hurbilpen guztiak justifikatzen dituena eta pedagogi ekintza benetakotzen, alegia, itxaropen baikorra izatea bizitzaren aurrean.
- Pedagogiaren berrikuntzen aurkako erreakzioa gizartearen eta politikaren erreakzioaren zati bat da, eta, horregatik, kontuan hartu behar dugu jarrera hori ere.
- Bihar edo etziko demokraziak eskolako demokrazia du oinarri. Baldin eta eskolan errejimen autoritariorik badago, ezin izango da herritar demokratarik sortu eta prestatu.
- Ikasgelak gainezka izatea pedagogia akatsa da beti. Talde handiek maisu-maistren anonimatua dakarte.
- Notak eta kalifikazioak akatsak dira beti.

.Maisu-maistrek ahalik eta gutxien hitz egin behar dute.

- Umeak ez du maite "artaldeko lana". Banakako lana nahiago izaten du, edota talde lana. Baina beti ere lankidetza giroan.
- Umea ez da nekatzen lanak bere bizimoduarekin bat egiten badu, berarentzat erabilgarria bada.
- Inori ez zaio kontrola edo zigorra gustatzen, izan ere, duintasunaren aurkako erasoak baitira; batez ere jendaurrean egiten badira.
- Eskolak garrantzi itzelezkoa ematen dio memoriari, baina balio hori ez da egiazkoa, baldin eta esperientzien bidezko hurbilpenean oinarritzen ez bada eta bizitzaren zerbitzura ez badago.
- Lanak motibazioa behar du beti.
- Denok izan nahi dugu garaile. Porrota eragoslea da, eta gainera, kemena eta grina zapuzten ditu.
- Edozeini gustatzen zaio zer lan egingo duen aukeratzea, nahiz eta ez izan aukeraketarik onena.
- Inori ez zaio helbururik gabe lan egitea laket, inork ez du errobotaren modura jardun nahi.
- Inori ez zaio atsegin agintekeria. Horretan umeak eta helduok berdinak gara.
- Nagusia izateak ez dakar derrigorrez besteen gainean egotea.
- Umeak eta helduok berdin-berdin gaude. Bien arteko aldea gradukoa da: ez ordea osakerazkoa.

# Haur Txikientzako gida*

Eskoriatzako Irakasle Eskolako Haur Liburu Mintegiak irakurritako liburuetan oinarrituta, HAUR TXIKIENTZAKO LIBURU-GIDA (0-7 urte) argitaratuko du, orain dela bi urte argitaratu zuenaren ildoari jarraituz.

Liburu interesgarri gehiago aztertuz eta gomendatuz gainera, hainbat ikuspegiren eta nola gai zehatzen arabera ageri dira liburuak sailkatuak: hala nola, umorea, imaginazioa, abentura, afektua, familia arazoak, heriotza, etab.

Eraskin baliagarriak ere irakur daitezke bertan, esaterako: haur txikientzako liburuak erosi aurretik gogoan eduki beharko genituzkeen puntuak, haur txikientzako liburu-sailkapena, etab.




Izaera kontestatarioa
Maxen kamiseta




Beldurra
Igela beldurrez dago




Afektua
Munia eta Ilargia

Jelosia
Eta orduan Oier iritsi zen







Ekologia
Sobre Moscas y Elefantes

**(*)OHARRA: HAUR TXIKIENTZAKO GIDA 1997KO MARTXOAN ARGITARATUKO DA**

# JAKINGARRIAK




EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION